

# **B** EZEROAREKIKO **H** ARREMANA

Gure enpresarekin Balder plaka erosteko, gurekin harremanetan egoteko hainbat modu daude. Alde batetik, gure telefono zenbakira deitzea: +34 987 585 111; bestetik, gure posta elektronikora mezu bat bidaltzea: [mbss.techno@gmail.com](mailto:mbss.techno@gmail.com), eta azkenik gure web-orria [www.mmbs-tech.com](http://www.mmbs-tech.com) bisitatzea.

Gure web-orrian gure Balder plaka produktuari buruzko informazio eskuragarri duzue, baita gure enpresari buruzko informazioa ere.

Bertan hainbat atal aurki ditzakezue:

- Lehenengo atalean, produktuaren deskribapena azaltzen da: nola osatuta dagoen, bere helburua, dituen abantailak, argazkiak produktua nolako den ikusteko, eta abar.
- Bigarren atalean, gure enpresari buruzko informazioa aurkitu dezakezue, nola sortu genuen, enpresan parte hartzen dugun partaide guztiona, eta abar, esaterako.
- Hirugarren atalean, bezeroak gurekin eta haien artean izango dituzten harremanak azaltzen ditugu. Balder plaken erosleen arteko komunitate bat sortuko dugu, haien artean eta gurekin harreman mota berria eta erraza sortuz. Honek, eguneroko ekintza jakin batzuk errazteko (adibidez, film bat ikustean, argia ez pasatzeko xafla aktibatu ) gustoko dituzten konfigurazio mailak eta hainbat iradokizunak partekatzeko ahalbidea emango du; baita haien galderak erantzuteko argazkiak edo erantzunak igotzea ahabidetzen duen *chat* bat ere. Halaber, Instagramen *hashtag* bat sortuko dugu, gure plaka erosten dutenek, bere argazkiak igo ditzaten. Honi esker, sare sozial honetako erabiltzaileek gure produktuaren argazki eta iritzi errealak ikusteko aukera izango dute.
- Amaitzeko, azken atalean, gurekin kontaktuan jartzeko “bezeroarentzako arreta” atala dago. Bertan gure enpresaren telefono zenbakia, gure posta elektronikoa eta abar eskuragarri dituzue.



